



Oñatiko bizikleta-karrerarik famauena

Aloña-Mendi kirol alkarteko txirrindularitza-sailak bere 50. urteurrena ospaketako liburu bat aurkeztuta izango dau, lan-txo hau kaleratu orduko. Egixa esateko, gorabehera batzuekin, **tradiziño luzia eta aberatsa euki dau Oñatik bizikleta-munduari dagokixonian.** Ixa ehun urtekua: 1920 eta 1930eko hamarkadetan antxiñako Aloña-Mendi, Oñate-Sport eta C. D. Oñate izeneko kirol alkartiak jardun euen, hurrenez hurren, karrerista-taldiak eta lasterketak aurrera ataraten gure herrian, eta emaitza oso onakin, gaiñera. Ahalegin hareik gerra ostian be jarraitu euen Txantxiku Txoko alkartiaren ardurapeian urte askuan. Eta **oraingo Aloña-Mendi** izan da azkenengo gizaldi-erdi honetan arlo horri eutsi xauena.

Zenbat txirrindulari, antolatzaillle eta afizionadu txantxikuarrek parte hartu ete dau bizikletiarengan Oñatin eta enparuetan izandako ekintza eta ikuskizun deportibuetan! Ezta gure asmua gaur eta hemen horreik aittaketia, horretarako orrialde ugari biharko lirakeelako. Baiña **bi fotografia honein bittartez omenalditxo apala eskiñi gura dostegu** luzaruan gure artian afiziño horren sugarra ixututa mantenidu dauen herrittar guztiai.

Zortzi-beratzi urteko umiak giñan artian, baiña oso ondo gogoraketan dittugu **1953ko martixaren 8xan** eta aurreko egunetan Oñatin bizi izan gittuan esperientzia ahazteziñak: urte haretan hemen ikusi geben **munduko ziklo-kros txapelketara** hamar herrialde-tako korredoriak eta teknikoak, dozenaka periodista eta aginttari eta millaka karrerazale eta kurioso etorri ziran trenez, autobusez, kotxe txikiz edo bizikletaz. **Ehundaka oñatiarrek hartu eben parte kirol gertaera famau haretan:** pertsona helduak aurreko hillabetetako prestakuntzetan, eta gazte pillia, neska nahiz mutil, egun bereko antolamendu-lanetan; eta jakiña, baitta herriko tabernari, ostalari eta transportistak be. **Franco eta bere ingurukuak pozik geratu ziran,** gerra ezkeror halakorik etzalako ezagutu diktadurapeian.

Frantsesak izan ziran jaun eta jabe sailkapenian: **Roger Rondeaux txapeldun, Gilbert Bauvin bigarren eta André Dufraisse hirugarren; Joaquim Filbá** katalanak bosgarren puestua eskuratu eben eta **Julian Agirrezabal** durangarrak zazpigarrena. Ibilbidiak ixa bost kilometro t'erdiko zirkuituari lau buelta emuten otsan; gogorra zan, aldapa eta gorabehera askorekin. Horreittako bat zan argazki honeittan agiri dana, Kale Zaharraren akaberako **Kurtzekotik zelaixan gora Torrealderaiño** igoten ebena. Argazki batian **Pierre Jodet** frantsesa eta **Julian Agirrezabal** bizkaitarra samur ezaguketan dira. Helmugan be alkarrekin sartu ziran. Dana dala, garai triste eta zail hareik izateko, **a zelako jentetzaia** etorri xakun Oñatira! Ba zan, nunbait, zerbaitten premiña.

J. E.